

Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegietarako sareko mailegu zerbitzurako arautegia

1.1 Bertsioa **2008ko maiatza**

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 70 – Fax 945 01 95 34 – e-mail ondarea@ej-gv.es



Dokumentu honek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko on-line katalogoaren barruan dauden liburutegien arteko sareko mailegu-zerbitzua arautzen du eta sareko mailegu-zerbitzurako Araudiak nahiz sareko mailegua kudeatzeko Eskuliburuak osatzen dute. Araudia liburutegien arteko mailegu-politikaz aritzen da; Eskuliburuak, berriz, liburutegien arteko maileguak Absysnetetik kudeatzeko prozedura zehazten du.

EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREKO LIBURUTEGIETARAKO SAREKO MAILEGU ZERBITZURAKO ARAUDIA

Dokumentu honek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko on-line katalogoaren barruan dauden liburutegien arteko sareko mailegu-zerbitzua arautzen du.

<http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua>

Sareko mailegua

Definizioa eta irispidea

Zer da?

Sareko mailegu-zerbitzuaren bitartez zera lortu nahi dugu: liburutegien arteko kolaborazioari esker, liburutegiek erabiltzaileen esku jar ditzatela beren funtsetakoak ez diren baina erabiltzaileek eska ditzaketen dokumentuak, IFLAren “Argitalpenen eskuragarritasun orokorra” programaren printzipioei jarraituta.

Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarearen katalogoaren bitartez eskaintzen den sareko mailegu-zerbitzua honako prozedura honetan oinarritzen da: zerbitzuari atxikitzen zaizkion liburutegiek sarean alta emanda dauden erabiltzaileen esku jartzen dituzte haiek eskatzen dituzten dokumentu jatorrizkoak, baldin eta, beren funtsetako edo bildumetako dokumentuak ez badira ere, beste liburutegiren batean eskuragarri badaude. Horretarako, jarraian adieraziko ditugun baldintza eta ezaugarri hauek bete behar dira.

Sareko mailegu-zerbitzuak liburutegietako bildumak osatzea erraztu lezake, baina ez ditu bildumok ordezkatzeko. Horregatik, eta kontuan hartuta zer nolako ahalegin ekonomiko eta kudeaketakoa eskatzen duen, komeni da modu arrazoizko batean erabiltzea.

Sareko mailegu-zerbitzuari atxikitzen zaizkion Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen on-line sareko liburutegi guztiek konpromisoa hartzen dute zerbitzu hori jarraian adierazitako erabiltzaile guztien esku jartzeko, araudi honetan eta arauditik eratortzen diren dokumentuetan ezarritako baldintzetan.

Dokumentu honetan arautzen ez diren liburutegiarteko mailegu-aukerak eskaintzeko (kopiak, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen on-line saretik kanpoko liburutegiekiko maileguak, araudian jaso gabeko euskarriak eta abar), liburutegi bakoitzak ezartzen dituen arauak errespetatuko dira.

Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Sareko mailegu moduan (SM) eskaturiko dokumentuak etxeko mailegu moduan eskuratu ahal izango dira, salbu eta aparteko arrazoiren bat tarteko betekizun bereziak ezartzen badira.

Nork?

Liburutegiek bideratuko dute liburutegiarteko mailegu-zerbitzua. Horretarako eskaria, baina, zerbitzu horretan sarbidea duen edozein erabiltzailek egin dezake.

SM zerbitzuan honako hauek izango dute sarbidea:

- ☐ Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen on-line sareko edozein liburutegitan alta emanda dagoen edozein erabiltzaile helduk (AHE).
- ☐ Erakunde erabiltzaileek (DER) eta beste liburutegiek (EBL), baldin eta zerbitzuan parte hartzen duten on-line sareko liburutegiak badira, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen on-line sareko edozein liburutegitan alta emanda badaude.

Isunen bat edo maileguak garaiz kanpo dituzten erabiltzaileek ezingo dute sareko mailegu-zerbitzura jo.

Nori?

Eskaria egiten duen liburutegiak erabakiko du aukeran dauden ale guztietatik zein eskuratu nahi duen, alegia, mailegua bideratzeko zein liburutegitara joko duen.

Eskaria liburutegi batean edo bestean egiteko, hurbiltasun-irizpideak erabiliko dira, bai eta liburutegi bakoitzaren baliabideak zein diren eta kasu bakoitzean SMren kargak zein nolako eragina duen ere.

Zer?

Mailegatu daitezkeen dokumentu motak

SM zerbitzuari atxikitzen zaizkion Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen on-line sareko liburutegi guztiek konpromisoa hartzen dute tokian tokiko liburutegiaren katalogoan mailegatzeko modukotzat jotzen diren monografia inprimatuen SM zerbitzua emateko.

Hala eta guztiz ere, ez dira eskatuko liburutegi eskatzaileak bere bildumetan edukitzeko edo eskuratzeko modukoak diren dokumentuak (best-seller-ak, kaleratu berriak eta abar).

Ez da sareko mailegurik emango, halaber, maiz samar kontsultatzen diren eta ale bakarra duten dokumentuen kasuan.

Helduentzako SMtik kanpo geratuko dira liburuz besteko materialak. Erakunde erabiltzaileek (DER) eta beste liburutegiek (EBL), ordea, sarbidea izango dute dagokion liburutegian mailegatzeko moduko kategoria duten liburuz besteko materialetan.

Bai liburutegi eskatzaileak bai eskatutako dokumentuaren titulartasuna duen liburutegiak, beraiek adierazten dituzten arrazoi objektiboak direla-eta, uko egin ahal izango diote hasiera batean mailegatzeko moduko dokumentuen artean sailkatutako lanen SM zerbitzua emateari.

Mailegatu daitekeen dokumentu kopurua

Erabiltzaile heldu bakoitzak (AHE) sareko mailegu-zerbitzuko 3 dokumentu eskuratu ahal izango ditu gehienez aldi berean, betiere sareko maileguei buruzko araudi orokorrak monografiak gainean ezartzen duen gehienezko kopurua gainditzen ez bada.

Erakunde erabiltzaile bakoitzak (DER) sareko mailegu-zerbitzuko 60 dokumentu (40 monografia eta bestelako materialeko 20 dokumentu) eskuratu ahal izango ditu gehienez, betiere sareko maileguei buruzko araudi orokorrak dokumentuen gainean ezartzen duen gehienezko kopurua gainditzen ez bada.

Beste liburutegi batzuk erabiltzaileek (EBL) sareko mailegu-zerbitzuko 25 dokumentu (15 monografia eta bestelako materialeko 10 dokumentu) eskuratu ahal izango ditu gehienez, betiere sareko maileguei buruzko araudi orokorrak maileguen gainean ezartzen duen gehienezko kopurua gainditzen ez bada.

Prozedura

Non?

Erabiltzaile helduek (AHE) beraiek atxikita dauden liburutegian eska dezakete zerbitzua edota edozein liburutegitan. Behin liburutegia aukeratuz gero, geroko tramite guztiak bertan egin beharko dira (dokumentua jaso, mailegua berritu, itzuli...).

Dokumenturen bat edo beste liburutegi jakin batean eskatzeak ez du esan nahi hori nahitaezko erreferentzia denik beste dokumentu batzuen liburutegiarteko mailegu-eskaera egiteko.

Erakunde erabiltzaileek (DER) atxikita dauden liburutegian eskatu beharko dute zerbitzua.

Nola?

ERABILTZAILEAK

Mailegu-eskaerak eta baliogabetzekoak egiteko, berariaz prestaturiko inprimakiak erabiliko dira, edota, hala badagokio, inprimaki horietan agertzen diren datuak.

Mailegu-eskaerak, berritzekoak edo baliogabetzekoak honela aurkez daitezke:

- ☐ Zuzenean, sareko edozein liburutegitara joanda.
- ☐ E-mail bidez.
- ☐ Faxe
- ☐ OPAC bidez berritzeko kasuan bakarrik

Mailegu-eskaeraren aurretik kontsulta egitea beharrezkoa da; alegia, araudi honen menpe eta Absysnet-en barruan dauden Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien funtsetan delako dokumentua eskuragarri dagoen ala ez egiaztatzea.

1. Erabiltzaileak. Eskaera.

Mailegu-eskabidea. Erabiltzaileak urrats hauek jarraituko ditu:

a.- Dokumentua bilatu Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen on-line katalogo kolektiboan.

b.- Egiaztatu dokumentua ez dagoela liburutegiarteko mailegua egiteko aukeratu den liburutegian, baina bai katalogoan eskuragarri.

c.- Bete liburutegiarteko mailegu-eskaera egiteko inprimaki bat, eskatu nahi den dokumentu bakoitzeko. Eskaeraren egoeraren berri emateko, liburutegiak behar dituen datu guztiak jasoko dira inprimakian.

d.- Behin erabiltzaileari jakinaraziz gero dokumentua haren esku dagoela eskaera egin duen liburutegian, erabiltzailea bertara joango da, jakinarazpenaren biharamunetik bi eguneko epean, bidezko prozedura formalizatzeraz.

2. Erabiltzaileak. Berritzea.

a.- Dokumentuaren eskaera eginda, mailegua berritu nahi bada, erabiltzaile helduen kasuan (AHE), OPACen bidez egin ahal izango da edo liburutegiarekin harremanetan jarrita, betiere maileguei buruzko araudi orokorrak horretarako ezarritako denbora-epearen barruan.

b.- Erabiltzaile helduen kasuan (AHE) eta betiere beste erabiltzaile batek egindako erreserbarik ez badago, mailegua behin baino ezingo da berritu. Berritzeak esan nahi du dokumentuari hasieran esleitutako denbora-tarte berean luzatzen dela mailegua.

3. Erabiltzaileak. Baliogabetzea.

Erabiltzaileak eskaera bat bertan behera utzi nahi badu, lehenbailehen jarriko da harremanetan eskaera egin duen liburutegiarekin, ezarritako prozeduraren arabera bere asmoaren berri emateko.

LIBURUTEGIAK

Sarean on-line dauden eta araudi honi atxikita dauden liburutegien arteko mailegu-zerbitzua Absysnet bidez kudeatuko da, ahal den guztietan.

Zehazki, instalazio bakarrean lanean diharduten liburutegiarteko eskabideak kudeatzeko diseinaturiko moduluak erabiliko dira.

LAM Euskadiko Irakurketa Sare Publikotik kanpoko liburutegiekin edo sareko mailegu-zerbitzuan ez dauden liburutegiekin tramitzeko, ohiko mailegu-moduluan “BESTE LIBURUTEGI BATZUK” dioen motaren erabiltzailetzat joko dira horiek.

Liburutegiak. Eskabideen tramitazioa.

a.- Erabiltzailearen eskabidea jaso ondoren, eskatutako dokumentuari buruzko datuak egiaztatuko ditu liburutegiak, eta dokumentua bidali behar duen liburutegiari igorriko dio eskabidea. Eskatutako tituluaren zein ale eta, beraz, liburutegi hornitzailea zein izango den, liburutegi eskatzailearen erabakia izango da. Horretarako, eskuragarritasun- eta hurbiltasun-irizpideak erabiliko ditu, bai eta eta kasu bakoitzean SMren kargak zein nolako eragina duen ere.

b.- Mailegu-eskaria jasotzen duen liburutegiak eskabidea jaso eta ezezko erantzuna eman behar badio, lehenbailehen jakinaraziko dio hori liburutegi eskatzaileari, ezezaren arrazoia azalduta.

c.- Erantzuna baiezkoa bada, ahalbait arinen bideratuko dira tramiteak. Ez da horretarako epe jakinik ezarriko.

d.- Bi liburutegiok (eskatzaileak eta mailegatzzaileak) elkarri jakinaraziko diote, ahal dela Absysnet-eko posta elektroniko bidez, programak jaso ezin duen edonolako ekintza edo gorabeheraren berri (adibidez, erabiltzaileak uko egin dio maileguari), edota, programak jaso ahal badu ere, jakinarazteko eragozpenak baldin badaude (programak, adibidez, eskabide bat jasotzen denean ez du horretaz ohartarazten).

Halaber, nabarmentzekoak diren gertakariak “MAILEGU-ESKAERA” eremuko “Oharra” atalean jasoko dira (Mailegu-mugimendua). Horretarako, kode normalizatuak erabiliko dira. halakorik baldin badago.

Liburutegiak. Dokumentuaren bidalketa.

a.- Dokumentua eskuztatu, bildu eta bidaltzeko lanetan, ez duela kalterik izango bermatu beharko da.

b.- Dokumentuen bidalketa mezulari-enpresa komun baten bitartez egingo da, dokumentuok jasotzeko eta entregatzeko aurrez erabakitako ibilbide eta datak jarraituta.

Liburutegiak. SM berritzea.

a.- SM zerbitzuaren bidez mailegatutako dokumentuak automatikoki berritu daitezke OPACen bidez, edo, bestela, liburutegiari jakinarazita. Ahal denean, liburutegi eskatzaileak maileguaren berritzea jakinaraziko dio liburutegi mailegutzaileari, azken horrek jakin dezan dokumentua zein epetan ez den eskuragarri egongo.

b.- Horretarako, ahal dela Absysnet-eko posta elektronikoa erabiliko da, eta “MAILEGU-ESKAERA” eremuko “Oharra” atalean jasoko da gorabehera hori.

Liburutegiak. Baliogabetzea.

a.- Baliogabetze-ekaria jaso ondoren, liburutegi eskatzaileak horren berri emango dio lehenbailehen liburutegi mailegutzaileari.

b.- Horretarako, ahal dela Absysnet-eko posta elektronikoa erabiliko da, eta “MAILEGU-ESKAERA” eremuko “Oharra” atalean jasoko da gorabehera hori.

Erantzukizunak edo konpromisoak

SM liburutegi titularraren eta liburutegi eskatzailearen arteko jardunbidea da. Horrenbestez, bi horietatik eskatzailea da dokumentuaren gaineko erantzukizuna hartzen duena; hortaz, hura zaintzeaz eta hartutako konpromisoak betetzeaz arduratuko da.

Liburutegi eskatzailea izango da dokumentuaren erantzulea, hura bere eskura iristen den mementotik eta berriz ere liburutegi mailegutzailearen egoitzara itzultzen den arte.

Edonola ere, alde horretatik sor litezkeen gorabeherak edo auziak ohiko etxeko mailegu-zerbitzuan erabili ohi diren irizpideen argitan ebatziko dira.

Mailegatzeko eta berritzeko epea**Iraupena**

Sareko mailegu-zerbitzuaren bitartez eskuratzen diren dokumentuekin ohiko mailegu-zerbitzuarekin erabiltzen diren baldintza berberak erabiliko dira, mailegatzeko eta berritzeko epeei dagokienez. Alegia, sareko maileguaren epea honela zehaztuko da.

☐ Erabiltzaile heldua (AHE):

Mailegu-epea:

Inprimatutakoak (liburuak): 15 egun

Berritzea:

Behin bakarrik berritu egin ahal izango da mailegua.

Mailegua berritzeak esan nahi du dokumentuari hasieran esleitutako denbora-tarte berean luzatzen dela mailegua.

☐ **Erakunde erabiltzailea (DER):**

Mailegu-epea:

Mailegatzeko moduko edozein material: 90 egun.

Berritzea:

Ezin da mailegua berritu.

☐ **Erabiltzailea, beste liburutegi batzuk (EBL):**

Mailegu-epea:

Mailegatzeko moduko edozein material: 30 egun.

Berritzea:

Ezin da mailegua berritu.

Kostua

Erabiltzaileak ez du ezer ordaindu beharko zerbitzuaren truke.

Isunak

Erabiltzaileak SM bidez dokumentuak eskatu, eta birritan horiek jasotzera bertaratzen ez bada, zerbitzu hori erabiltzeko debekua ezarriko zaio zazpi egunez.

Gainerako kasuetan, liburutegiartekoa ez den ohiko mailegu-zerbitzuan aplikatzen diren isun berak ezarriko dira.